

IBILBIDE-ORRIA

Energia-komunitate bat eratzekeo urratsak

1. PAUSOA- Talde eragilea osatzea eta lehen hausnarketa kolektiboa egitea

- **Interesdunen taldea sendotzea.** Pertsona hauek trakzio-taldea izango dira, eta energia-komunitatean parte hartzen duten gizarte-zimenduak ehuntzen hasiko dira. Ekimenarekin bat egiten duten interesdunek WhatsApp talde bat, edo berehalako mezularitzako beste sare sozial bat, sortzea gomendatzen da komunikazio guztiak bidaltzeko.
- **Energia-komunitatearekiko kezkak, interesak eta espektatibak identifikatzea.** Lortu nahi diren helburuen aurretiko azterketa egitea, ideia-jasa gisa, taldearen beharrak baloratzuz etorkizuneko parte-hartzaile guztien artean.
- **Lehenengo bilera bat antolatu,** zer forma juridiko aukeratu nahi den eta taldearen gobernantza nolakoa izango den (kooperatiba, elkarte edo beste forma juridiko bat) zehazteko.

2. PAUSOA – Energia-komunitatearen eredia diseinatzea

- **Jarduera-eremua zehaztea.** Energia-komunitatearen eskala zehaztea, auzo-komunitate desberdinen artean edo auzo guztian zehar eratu nahi den baloratzea.
- **Tokiko ingurunekeo pertsona edo eragile gehiago inplikatu nahi badira aztertzea** (saltokiak, elkartek, erakundeak, familiak, etab.). Saltoki edo beste pertsonaren bat parte hartzera gonbidatuko diren edo momentuan zaudetenekin hasiko zareten erabakitzea.
- **Estatutuen idazketan aurrera egitea** eta gobernantza-ereduaren definizioa. Forma juridikoa erabaki ondoren, estatutuak idazten hasi dezakezue (EKB-tik ereduak eman diezazkizuegu). Hurrengo puntuak kontuan izan behar dira:

- Nola antolatu nahi duzuen gobernantza eta parte-hartzea (gogoratu EK batean pertsona bat boto baten printzipio demokratikoan oinarritzen dela, energia-banaketatik harago).
 - Nola erraztuko den kideen sarrera eta irteera.
 - Energia-komunitatearen helburuak zehaztea, batez ere sozialak eta ingurumenekoak, horiek baitira talde eragileko kideek erakutsi zenuten ikuspegi partekatua.
 - Zer energia- edo gizarte-proiektu motak landu nahi dituzue EK-tik, autokontsumoaz gain (mugikortasun elektrikoa, eraginkortasuna, beste ekintza komunitarioak...)
- **Hasierako egutegi bat ezartzea**, kronograma ezagutzeko eta ekintza bakoitza gauzatzeko epeak zehazteko.

3. PAUSOA– Energia-komunitatearen eraketa formala

- **Estatutuak eta sorrera-akta idaztea eta onartzea.** Estatutuak*, kuotak eta barne-arauak onartzea (barne-araudia).
- **EKren legezko** erregistroa elkarte edo kooperatiba bezala:
 - [Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistroa](#)
 - [Eusko Jaurlaritzako Kooperatiben Erregistroa](#)
- Behin izena emanda, behin-behineko **IFZ eskatu behar duzu Arabako Foru Ogasunean** ([Arabako Zerga Agentzia](#)) eta bertan erregistroa egitea. Horretarako, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:
 - **Zentsu-aitorpenaren 036** ereduak.
 - Kooperatiba/elkartea eratzeko **eskritura**, erregistroan inskribatuta.
 - Kooperatibaren/elkartearen **legezko ordezkariaren NANA**.
 - Kooperatiba/elkartearen **estatutuak**.
- **Rolen definizioa eta banaketa** (lehendakaritza, idazkaritza, diruzaintza, etab.).
- **Banku-kontua irekitzea** eta oinarritzko beste administrazio izapide batzuk.

4. PAUSOA – Instalazio fotovoltaikoaren lehen proiektu teknikoaren prestatzea

- **Instalazioaren azterketa teknikoak:** zenbateko potentzia, bideragarritasuna...
- **Finantzaketa-iturriak aztertzea** (kapital pribatuko ekarpenak, dirulaguntzak, maileguak...).

5. PAUSOA – Abian jartzea eta jarraipena

- **Proiektu teknikoaren gauzatzea eta legezko izapidetzea banatzailearen aurrean.**
- **Instalazioa eta konexioa.**
- **Proiektuaren lorpenen komunikazioa eta sozializazioa energia-komunitatearen kideekin.**
- **Jarraipen tekniko eta ekonomikorako barne-antolaketa** (energia-kudeatzailea, komisioak, batzarrak...). Egin daitezkeen aldaketen jarraipena, hala nola banaketa-koefizienteak, mantentze-lanen egoera... eguneratzea.
- **Inpaktuaren ebaluazioa eta kide edo proiektu berriei irekitzea.** Behin erabat finkatuta, komunitatearen barruan ekintza berriak baloratzea.

EGIN BEHARREKO LEHEN URRATSEN LABURPENA

1. Talde eragilea sendotzea eta lehen bilera bat egitea energia-komunitatea nola bideratuko den erabakitzeko.
2. Forma juridikoa erabakitzea.
3. Estatutuak idaztea.
4. Kideen zereginak erabaki (rolak).
5. Estatutuak onartzea.
6. Energia-komunitatea erregistroan inskribatzea..
7. IFZ bat lortu.
8. Bankuko kontu bat ireki.

PROIEKTU BAKOITZERAKO BEHARREKO INFORMAZIO GASTEIZKO EKBan

*Energia-komunitate baten estatutuen ereduak, erreferentzia gisa. Dokumentu honek oinarri irekia da, zuen beharren, kezken eta proiektuari eman nahi diozuen ikuspegiaren arabera beharrezkotzat jotzen dituzuen ekarpenak eta doikuntzak barne har ditzazuen. Hona hemen estatutuak egokitzeko edo osatzeko kontuan har ditzakezuen funtsezko gai batzuk:

- Nola antolatu nahi duzue gobernantza eta parte-hartzea (gogoratu EK bat pertsona baten printzipio demokratikoan oinarritzen dela, boto batean pertsona bakoitzeko, energia-banaketatik harago).
- Nola erraztuko den kideen sarrera eta irteera, edo nola sartu zaugarritasun energetikoko egoeran dauden pertsonak.
- Zehazki zehaztea energia-komunitatearen helburuak, batez ere sozialak eta ingurumenekoak, horiek baitziren talde eragileko kideek erakutsi zenuten lehenengo ikuspegi partekatuan.
- Udalak izango duen rola (bideratzaile edo kide aktibo gisa).
- Zer energia- edo gizarte-proiektu mota landu nahi dituzue EKtik autokontsumoaz gain (mugikortasun elektrikoa, eraginkortasuna, ekintza komunitarioak...)